

EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO BESTE SUPERMERKATU BAT INAUGURATU DU GIPUZKOAN, BEASAINEN

- **Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei, fabrikatzaileen markekin eta marka propioarekin eta freskoetan lidergoa dutenekin**
- **Saltokian bost langile ariko dira**
- **Kooperatibaren asmoa da 50 bat frankizia irekitzea aurtan**

Beasain (Gipuzkoa), 2019ko urtarrilaren 31.- [EROSKI](#)k frankizia erako beste supermerkatu bat ireki du Beasainen (Gipuzkoa), Mariarats kaleko 4.ean. EROSKI/City izenekoa da saltokia, eta, tratu pertsonalizatuagoa eman ez ezik, apustu egingo du tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde; horrez gainera, elikadura osasungarria sustatuko du, eta eguneroko erosketetan aurrezteko modu berriak eskainiko ditu. Supermerkatu hau inauguratuta, bost lanpostu sortu dira.

Supermerkatuak 3.000 produktu baino gehiago eskainiko ditu, ekoizle liderren markakoak, marka propioak eta tokiko ekoizleak, eta 200 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiaren sasoiko tokiko frutena eta barazkia, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak ogiak eta opilak izango ditu, labe propioan egin berriak, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarriak behinena. Markaren Bezero-Bazkideen harremanerako programa berria da, eta %15eko deskontuak eskaintzen ditu 2.500 produktutan baino gehiagotan, baita sustapenak, berriazko eskaintzak eta Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere. 240.600 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako Bezero bazkideak, eta EROSKI Cluben abantailak eskuratzen ari dira dagoeneko Gipuzkoan.

Salmentak igo egin dira %10 2018an

%10 handitu ziren EROSKIren supermerkatu frankiatuen sarearen salmentak. Kooperatiba formatu komertzialak berritzen ari da, merkatuan gaur egun dauden ereduak alternatiba bat eskaintzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKI sendo doa aurrera kooperatiba Espainia osoan hedatua egon dadin. Frankizien sarea dagoeneko autonomia erkidego guztietan dago (Kanarietan izan ezik), eta asmoa da aurten are gehiago zabaltzea, aurreko urteetako irekiera tasari eutsita arrakasta berarekin; hala, 50 bat frankizia irekiko ditu 2019an.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)